



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



Gorbeialdeko Kuadrillaren egoitzan, Murgian, 2024ko urriaren 15ean, **AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA** Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea, honako ebazpena hartu zuen:

En la sede de la Cuadrilla de Gorbeialdea, sita en Murgia, a 15 de octubre de 2024, el presidente de la Cuadrilla, **D. AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA**, adoptó la resolución que sigue:

GAIA: Praktikaldiari edo probaldiari buruzko instrukzioa.

ASUNTO: Aprobación de la instrucción sobre el periodo de prácticas/prueba.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

I. Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurri buruzko abenduaren 28ko 20/21 Legetik eratorritako Enplegu Publikoaren Eskaintza eta horren ondoriozko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten Oinarri Orokorrak onartu ondoren, egokia da zerbitzu-instrukzio batean jasotzea aplikazio juridikoko irizpideak, bai eta administrazio-jardunerako jarraibideak ere, egoera horretan dauden langileen praktika-/proba-fasearen garapenari dagokionez.

I. Tras la aprobación de la Oferta Pública de Empleo derivada de la ley 20/21, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, así como las Bases Generales que rigen los procesos selectivos que de la misma se derivan, se hace oportuno recoger en una Instrucción de servicio los criterios de aplicación jurídicos, así como las pautas para la actuación administrativa en relación con el desarrollo de fase de prácticas/prueba del personal en dicha situación.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Administrazio-organismoek hierarkikoki mendekoak diren organoen jarduerak zuzendu ahal izango dituzte zerbitzu-jarraibide eta -aginduen bidez".


I. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6, Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público "Los órganos administrativos podrán dirigir las actividades de sus órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y órdenes de servicio".

II. 20/21 Legearen idazketak, izangaiak hautatzeko sistemari dagokionez, lehiaketa-oposizio prozedurara igortzen du, kasuan kasu. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.9 artikulua arabera, praktikaldia prozesuaren zati bat izan daiteke. Hala ere, konkurtsoaren eta lehiaketa-oposizioaren erregulazio orokorretik kanpo dagoenez, deialdia egin duen erakundeak nolabaiteko

II. La redacción de la Ley 20/21 en cuanto al sistema de selección de las personas aspirantes, remite a los procedimientos de concurso o concurso – oposición, según los casos. Conforme al artículo 78.9 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, el periodo de prácticas podrá ser una parte del proceso. Sin embargo, al estar fuera de la regulación general tanto del concurso como del concurso – oposición, la entidad

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA) Presidentea / Presidente		15/10/2024 12:42

2024 - 34
Dekretu/Decreto
PRESIDENTZIAREN EBAZPENEN LIBURUA /
LIBRO DE RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalnegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



diskrezionalitatea du erregulazio operatiborako.

convocante posee cierta discrecionalidad para su regulación operativa.

III. Are gehiago, 16. oinarri orokorrak ezartzen du probaldiaren helburua izangaiak lanpostua betetzeko beharrezkoa den prestakuntza praktikoa eskuratzea eta dagozkion funtzioak arian-arian bere gain hartzea dela. Alderdi hori nahitaez baldintzatu behar da hautaketa-prozesuaren xede diren lanpostuak betetzen ari diren pertsonen kasuan.

III. A mayor abundamiento, la base general 16 establece que el objetivo del periodo de pruebas no es otro que procurar que la persona aspirante adquiera la formación práctica necesaria para el desempeño del puesto y que asuma progresivamente las funciones correspondientes. Este extremo ha de ser necesariamente mediatizado en el caso de las personas que ya se encuentran desempeñando los puestos objeto del proceso selectivo.

IV. Gainera, kontuan hartu behar dira apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua, apirilaren 21eko 11/99 Legeak eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen 5/2015 Errege Lege Dekretuak emandako idazketaren arabera.

IV. Además, se deben tener en cuenta el artículo 21.1.h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, según redacción dada por la Ley 11/99, de 21 de abril y el RDL 5/2015 que aprueba el texto refundido del Estatuto Básico del Empleado Público.

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

En virtud de las atribuciones que me son conferidas por la legalidad vigente

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- 1. ERANSKIN gisa eranstean den praktikaldiaren instrukzioa onartzea.

Primero.- Aprobar la Instrucción del período de prácticas que se adjunta como ANEXO 1.

Bigarrena.- Kuadrillaren webgunean eta iragarki-taula guztietan argitaratzea.

Segundo.- Dar publicidad en la web de la cuadrilla, así como en todos los tablones de anuncios.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA)	Presidente / Presidente	15/10/2024 12:42



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



I. ERANSKINA

PRAKTIKALDIARI EDO PROBALDIARI
BURUZKO INSTRUKZIOA

Praktikaldiak balio behar du, alde batetik, kuadrillaren antolakuntzan sartu berri den pertsonari informazio nahikoa emateko erakundeari berari eta bertako lanbaldintzei buruz. Era berean, denbora horretan zehar, langile hasi berriak informazio espezifiko jasoko du betetzen duen lanpostuaren inguruan, bere lana behar bezala egingo badu.

Gainera, praktika-aldiari esker egiaztatuko da izangaiak eginkizun duen lanpostua betetzeko duen gaitasuna. Bigarren alderdi honen inguruan dihardu honako instrukzio honek.

Alde batetik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, aurreikusten du probak (funtzio publikoan sartzeko) praktika-aldiak gaindituz osatu ahal izango direla (61.5 artikulua).

Aukera hori bera jasotzen da, halaber, ekainaren 7ko 896/1991 Errege-Dekretuaren 4.c), laugarren paragrafoan, bai eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean ere, 76.5 eta 7 eta 78.9 artikuluetan ezartzen baitu praktikaldia gainditzeko aukera, hautaketa-prozesuaren beste fase bat balitz bezala.

Testu bereko 127. artikulua arautzen ditu egoera horretako ordainsariak.

Era berean, kontuan hartu behar da martxoaren 10eko 364/1995 Errege-Dekretuaren 24. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, 364/1995 Errege-Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dagoen pertsonalaren sartzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeari eta lanbidesustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Gorbeialdeko Kuadrilla
Udal plaza, 1. 1.a ezk.
01130 Murgia (Zuia) ARABA

ANEXO I

INSTRUCCIÓN SOBRE EL PERÍODO DE
PRÁCTICAS/PRUEBA

El período de prácticas, por un lado, debe servir para que la persona recién incorporada en la organización de la cuadrilla sea informada suficientemente sobre la propia entidad, así como de sus condiciones laborales. Asimismo, durante este tiempo la persona incorporada recibirá la información específica del puesto que ocupa, para posibilitar el desempeño de su labor adecuadamente.

Además, el período de prácticas tiene por objeto comprobar la aptitud del aspirante para desempeñar el puesto de trabajo para el cual ha sido adscrito. Es este segundo aspecto al que va dirigida la presente Instrucción.


Por una parte, el RDL 5/2015, de 30 de octubre que aprueba el texto refundido de la Ley, del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP) prevé que las pruebas (para acceso a la función pública) puedan completarse con la superación de períodos de prácticas (art. 61.5).

Esta posibilidad viene, asimismo, recogida en el Real Decreto 896/1991, de 7 de junio art. 4.c), párrafo cuarto], así como en la Ley 11/2022 de 1 de diciembre, del Empleo Público Vasco que establece en el artículo 76.5 y 7 y 78.9 la posibilidad de la superación de un período de prácticas, como una fase más del proceso selectivo.

El artículo 127 del mismo texto regula las retribuciones de esta situación.

Así mismo cabe tener en cuenta lo dispuesto en el artículo 24 y siguientes del Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado y de Provisión de puestos de trabajo y Promoción Profesional del funcionario civil de la Administración General del Estado.

2024 - 34
15/10/2024
Dekretu/Decreto
PRESIDENTZIAREN EBAZPENEN LIBURUA /
LIBRO DE RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



1. artikulua. Xedea.

Praktika-fasearen edo probaldia helburua izango da karrerako funtzionarioen kategoriara edo lan-kontratupeko pertsonal finkora sartu nahi deneko kategoriaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzea, eta instrukzio honetan ezartzen den prozeduraren arabera garatuko da.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Honako instrukzio hau kuadrillako praktiketako funtzionario zein lan-kontratupeko pertsonal finkoari aplikatuko zaie.

3. artikulua. Iraupena

Praktikak edo probaldiak honako iraupen hau izango dute:

- A1 azpitaldea: 6 hilabete
- A2 azpitaldea: 6 hilabete
- C1 azpitaldea: 3 hilabete
- C2 azpitaldea: 3 hilabete
- Lanbide-taldeak: 3 hilabete

4. artikulua. Prozedura

Praktiketako funtzionarioak edo probaldiko lan-kontratupeko pertsonala izendatu ondoren, tutore bat esleituko zaio izangai bakoitzari. Tutoreak, ahal dela, bost urte beharko ditu eginak zerbitzuan, gutxienez, eta izangaiak praktikak egiten ditueneko zentro berean egon beharko du.

Gainbegiralea, kasuan kasuko lanpostuari dagokion arloko arduraduna izango da.

Nolanahi ere, tutorearen eta gainbegiralearen izendapenaren berri emango zaie izangaiari eta epaimahai kalifikatzaileari.

Tutorea, ahal dela, izangaiak betetzen duen lanpostutik hierarkian goragoko hurrengo postuan diharduen pertsona izango da. Nolanahi ere, kategoria berekoa ez bada, kategoria jakin batekoa izan beharko du, eta unean uneko sarbideari dagokion

Artículo 1.- Objeto.

La fase de prácticas o periodo de prueba tendrá como finalidad comprobar la aptitud para el desempeño de las funciones propias de la categoría en la que se aspira ingresar en el funcionariado de carrera o en el personal laboral fijo, y se desarrollará conforme al procedimiento que se establece en la presente Instrucción.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación

Esta instrucción se aplicará al personal funcionario en prácticas como al personal fijo en pruebas de la cuadrilla.

Artículo 3.- Duración

Las prácticas o la prueba tendrán la siguiente duración:

- Subgrupo A1: 6 meses
- Subgrupo A2: 6 meses
- Subgrupo C1: 3 meses
- Subgrupo C2: 3 meses
- Agrupaciones Profesionales: 3 meses

Artículo 4.- Procedimiento

Tras el nombramiento del personal funcionario en prácticas o personal laboral fijo en prueba, se asignará a cada aspirante una persona tutora. Esta tutora deberá tener preferentemente, al menos, cinco años de servicio, y debe estar destinada en el mismo centro en el que la persona aspirante desarrolle las prácticas.

El supervisor será la persona responsable del área al que pertenezca el puesto que esté desempeñando.

Se notificará, en todo caso, la designación de la persona tutora y supervisora al aspirante y al tribunal calificador.

La persona tutora será, preferentemente, la persona que desempeñe el puesto inmediato superior jerárquico del puesto que desempeñe el aspirante. En todo caso, de no pertenecer a la misma categoría, deberá ostentar una categoría para cuyo

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA) / Presidente	Presidente / Presidente	15/10/2024 12:42

2024 - 34
15/10/2024
Dekretu/Decreto
PRESIDENTZIAREN EBAZPENEN LIBURUA /
LIBRO DE RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacion/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



titulazioaren berdina edo handiagoa beharko du.

ingreso se requiera una titulación igual o superior a la del acceso en cuestión.

Honako eginkizun hauek izango ditu:

Sus funciones serán:

1. Egin beharreko lanari buruz aholkatzea eta informatzea.
2. Praktiketara edo probaldian pertsonaren jarduna ebaluatzea eta orientatzea, eta, beharrezkoa balitz, bere jarduna bideratzea.

1. Asesorar e informar sobre el trabajo a desarrollar.
2. Evaluar y orientar la actuación de la persona en prácticas o en periodo de pruebas, reconduciendo su actuación en el caso de que fuera necesario.

Tutoreak eta ikuskatzaileak izendatzerakoan aplikatuko dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren leku 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako abstentzio eta errefusatzearrazioak.

A la designación de las personas tutora y supervisora serán aplicables las causas de abstención y recusación previstas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público

Pertsona bera izan daiteke tutorearen eta ikuskatzailearen izendapena jasoko duena.

El nombramiento de las personas tutora y supervisora puede recaer en la misma persona.

Praktikaldian edo probaldian, esleitutako tutoretza betetzea eragozten duen zirkunstantziaren bat gertatuko balitz, unean uneko arloko arduradunak beste pertsona bat izendatuko du, adierazitako irizpideen arabera, eta lehenengo paragrafoan ezarritakoari jarraiki jokatuko da.

Si durante la fase de prácticas o periodo de pruebas se produjera alguna circunstancia que impida el desempeño de la tutoría asignada, la persona responsable del área correspondiente nombrará a otra persona de acuerdo con los criterios señalados y procediéndose tal y como se establece en el párrafo primero.

Praktikaldia edo probaldia amaitzean, tutoreak izangaiaren ebaluazioa egingo du, lortu nahi duen kategoriari dagozkion eginkizunak betetzeko erakutsitako egokitasunari buruzkoa, instrukzio honen eranskin gisa agertzen den txosten-eredua erabiliz.

A la finalización del período de prácticas o pruebas, la persona tutora realizará la evaluación del aspirante, que se referirá a la idoneidad mostrada para el desempeño de las funciones propias de la categoría a la que aspira, conforme al modelo de informe que figura como Anexo a la presente instrucción.

Txostena dagokion arloko arduradunak gainbegiratu du, eta hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari helaraziko zaio. Epaimahaiak, txostena ikusirik, praktikaldia gainditu den ala ez erabakiko du eta presidentziari helaraziko dio praktika-aldia edo proba-aldia gainditu duten pertsonak karrerako funtzionario edo lan-kontratupeko pertsonal izendatzeko proposamena.

El informe será supervisado por la persona responsable del área correspondiente, y se elevará al tribunal calificador del proceso selectivo, el cual, a la vista del mismo, determinará la superación o no de la fase de prácticas o pruebas y elevará a la presidencia propuesta de nombramiento en el personal funcionariado de carrera o personal laboral en pruebas a favor de las personas aspirantes que hayan superado el referido período.

Txostena kontrakoa bada, behar bezala arrazoitu beharko da eta 10 egun baliodunen

En caso de que el informe sea desfavorable, que deberá ser debidamente motivado, se

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA)	Presidentea / Presidente	15/10/2024 12:42

2024 - 34 Dekretu/Decreto
PRESIDENTZIAREN EBAZPENEN LIBURUA / LIBRO DE RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



epea emango zaio izangaiari, hala balegokio, egoki lertzekeen alegazioak egin ditzan. Kalifikazio-epaimahaiak egoki joko lituzkeen alderdi eta datu guztiak eskatu ahal izango dizkio praktikak egin direneko arloari.

otorgará un plazo de 10 días hábiles a la persona aspirante para que realice, en su caso, las alegaciones que estime pertinentes. El tribunal calificador podrá requerir del área en el que se hayan realizado las prácticas cuantos aspectos y datos estime oportunos.

Epaimahai kalifikatzailearen erabaki arrazoitu bidez proposatuko da, hala badagokio, praktikaldia edo probaldia ez gainditzea. Praktika edo probaldia ez gainditzea, presidentziaren ebazpen bidez egingo da, prozesutik kanpo geratzea eta karrerako funtzionario edo lan-kontratupeko pertsonal izendatzeko eskubide guztiak galtzea berariaz eraginda.

Mediante acuerdo motivado del tribunal calificador se propondrá, en su caso, la no superación del período de prácticas o prueba. La no superación, que conllevará la exclusión del proceso y la pérdida de todos los derechos a su nombramiento como personal funcionario de carrera, se efectuará mediante resolución de la presidencia.

Epaimahai kalifikatzaileak praktikaldiaren emaitzari buruz hartutako erabakia loteslea izango da kuadrillako presidentziarentzat, nahiz eta honek berriusi ahal izango duen, administrazio-prozedura arautzen duen arautegian aurreikusitako moduan.

El acuerdo del tribunal calificador sobre el resultado del período de prácticas será vinculante para el presidente de la cuadrilla, sin perjuicio de que éste pueda proceder a su revisión en la forma prevista en la normativa reguladora del procedimiento administrativo.

5. artikulua. Praktikak baliozkotzea

Artículo 5.- Convalidación de las prácticas

Praktika edo proba-fasea baliozkotu ahal izango zaie izangaiei, baldin eta, bitarteko funtzionario edo lan-kontratupeko pertsonal gisa, praktikei dagokien lanpostuan arlo berean kategorian horretan edo antzeko funtzioetan modu eraginkorren aritu badira, gutxien dela, praktika edo proba-aldiari dagokion denboran zehar eta modu jarraituan; betiere, lanpostuari dagokion arloko arduradunak egindako txostena aldekoa bada.

Podrá convalidarse la realización de la fase de prácticas o pruebas a las personas aspirantes que hayan desempeñado de manera efectiva, en el funcionariado interino o como personal laboral, el puesto asignado para la realización de las prácticas o prueba o funciones similares en dicha categoría en el mismo área, durante, al menos, el tiempo establecido para la realización de las mismas de forma continuada, siempre que el informe emitido por parte de la persona responsable del área al que esté adscrito el puesto, sea en sentido favorable.

Baliozkotzea izangaia eskatu beharko du, behin praktiketako funtzionario edo lan-kontratupeko pertsonal finko izendatu ondoren, eta kuadrillako presidentziari zuzenduko dio. Kasu horretan, baliozkotzeko baldintzak beteko balira, kasuan kasuko arloko arduradunak egin beharko du txostena, Instrukzio honen eranskinetako ereduari jarraituz.

La convalidación deberá solicitarse por la persona aspirante, una vez nombrada funcionaria en prácticas o personal laboral fijo en prueba, y se dirigirá al presidente de la cuadrilla. En ese caso, de cumplirse los requisitos para la convalidación, la persona responsable del área implicada deberá emitir informe, que seguirá el modelo que contiene el Anexo a la presente Instrucción.

Hala ere, administrazio-funtzionamendurako arrazoiak direla-eta, administrazioak berak hasi ahal izango du prozedura ofizioz. Kasu horietan,

No obstante, por razones de funcionamiento administrativo, la administración podrá iniciar el procedimiento de oficio. En tales casos, el tribunal propondrá la convalidación

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA)	Presidentea / Presidente	15/10/2024 12:42



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalnegotioa.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



epaimahaiak proposatuko du baliozkotzea eta presidentziari igorriko dio proposamena, beronek ebatz dezan. Presidentziak, ebazpena ikusita, praktika-aldia gainditzea zehaztuko du. Praktika edo probaldia baliozkotu ondoren, izangaiak karrerako funtzionario edo lan-kontratuako langile finko izendatuko dira.

6. artikulua. Praktikak edo probaldia etetea eta geroratzea

Praktikaldian edo probaldian dagoen pertsona 15 egun baino gehiagotan (etenik gabe edo etenka) egongo balitz aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-lizentzian edo praktikaldiaren edo probaldiaren ohiko garapena eragotziko liokeen beste edozein justifikazio zein arrazoi dela eta (oporraldian izan ezik), praktikaldia edo probaldia luzatzeko eskatu beharko du.

Luzapen-baimena presidentziak edo berori ordezkia lezakeenak emango du. Luzapena gertaera eragilearen iraupen-epe bererako luzatuko da eta gertaera eragilea desagertutakoan abiatuko da.

Praktiketan edo proban ari denak eta kasuan kasuko arloko arduradunek presidentziari jakinaraziko diote 15 egunetik gorako absentsiarik lekarkeen edozein egoera (etenik gabe edo etenka).

Praktika edo proba-aldian ez bertaratzeak hautaketa-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du automatikoki, salbu eta aldi hori geroratu eta konpentsatu ezean.

7. artikulua. Jarduneko zerbitzutik etorritako praktiketako funtzionarioak edo proban ari den lan-kontratupeko pertsonal finkoa

Kuadrillako karrerako funtzionarioak edo lan-kontratupeko pertsonal finkoa diren eta jarduneko zerbitzuan dauden praktiketako funtzionarioek edo lan-kontratupeko pertsonal finkoak jatorrizko lanpostuan jarraituko dute egoera horretan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean aurreikusitako

y elevará la propuesta al presidente para su resolución, el cual, a la vista del mismo, determinará la superación del período de prácticas. Una vez convalidada la fase de prácticas o prueba, los aspirantes serán nombrados funcionarios de carrera o personal laboral fijo.

Artículo 6.- Suspensión y aplazamiento de las prácticas o período de pruebas

En los casos en los que la persona en prácticas o prueba se encuentre, durante un período superior a 15 días (de forma continuada o discontinua), en situación de incapacidad temporal, licencia por maternidad o cualquier otra causa justificativa que le impida el desarrollo ordinario de la fase de prácticas o prueba, a excepción del período vacacional, deberá solicitar la prórroga de la fase de prácticas.

La autorización de prórroga será emitida por la presidencia o persona en quien delegue. La prórroga se extenderá por idéntico plazo al de la duración del hecho causante y se realizará una vez desaparecidas las circunstancias impeditivas

La persona en prácticas o prueba, así como las responsables del área correspondiente pondrán en conocimiento de la presidencia, cualquier situación que suponga ausencia del puesto de trabajo superior a 15 días (de forma continua o discontinua).

La falta de asistencia durante el período de prácticas o prueba, salvo que se aplace y se compense dicho período, supondrá la automática exclusión del proceso selectivo.

Artículo 7.- Personal funcionario en prácticas o en prueba que procede de la situación de servicio activo.

El personal funcionario en prácticas o personal laboral fijo que sean funcionarios de carrera o personal laboral fijo de la cuadrilla y se hallen en la situación de servicio activo, permanecerán en dicha situación en el puesto de origen, y deberán solicitar la excedencia prevista en la Ley 11/2022 de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco (art.148)

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA)	Presidentea / Presidente	15/10/2024 12:42



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



eszedentzia eskatu beharko dutelarik (148. artikulua).

8. artikulua. Ordainsariak eta oporrak.

Praktiketan edo probaldian izendatu ondoren, alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean. Lanpostu batean aritzen badira, lanpostu horri dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

Praktiketako funtzionarioei edo lan-kontratupeko pertsonalari egiazko zerbitzudenbora gisa zenbatuko zaie praktikaldian edo probaldian egindako denbora, legokiekeen aparteko ordainsaria ordaindu eta egindako zerbitzuak aitor dakizkien.

Praktiketako funtzionarioek edo lan-kontratupeko pertsonalak eskubidea izango dute dagozkien egun proportzionalak hartzeko, bai praktika-fasean zehar, zerbitzuaren beharrak beti gordeta, bai geroago, gainditu ondoren, hala badagokio, unean uneko urteko egutegiak onartzen dituen presidentziaren dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

9. artikulua. Hautaketa-prozesutik at geratzea.

Hautaketa-prozesutik kanpo uzteko arrazoia izango da Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatiko zehapena ezartzea.

Artículo 8.- Retribuciones y vacaciones.

Una vez nombradas en prácticas o en periodo de prueba serán dadas de alta en el Régimen General de la Seguridad Social. Si desempeñan un puesto de trabajo, percibirán las retribuciones correspondientes al mismo.

Al personal funcionario en prácticas o personal laboral en prueba se le computará el período de prácticas o prueba como tiempo de servicio efectivamente prestado, a efectos del abono de la paga extraordinaria que le pudiera corresponder, así como de reconocimiento de servicios prestados.

El personal funcionario en prácticas o personal laboral en prueba tendrá derecho a disfrutar de los días que proporcionalmente le correspondan, bien durante la fase de prácticas, condicionado a las necesidades del servicio, bien posteriormente, una vez superado el mismo, en su caso, todo ello conforme a lo que viene previsto en el decreto de presidencia que apruebe los calendarios del año correspondiente.

Artículo 9.-Exclusión del proceso selectivo.

Será causa de exclusión del proceso selectivo la imposición de una sanción por la comisión de una infracción tipificada como grave o muy grave prevista en la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (GORBEIALDEKO KUADRILLA - CUADRILLA DE GORBEIALDEA)	Presidente / Presidente	15/10/2024 12:42



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=ZUIA_CU
X0144708b0290f02e6507e807c0a0c204



ERANSKINA / ANEXO
PRAKTIKA-ALDIKO EBALUAZIOA / EVALUACIÓN PERÍODO DE PRÁCTICAS

Adierazleak Indicadores	Egokia Satisfactorio	Desegokia No satisfactorio
1. Lanaren ezagutza Conocimiento del trabajo		
2. Lana betetzea Cumplimiento del trabajo		
3. Antolaketa eta erantzukizun- zentzua Organización y sentido de la responsabilidad		
4. Nagusien aginduak betetzea. Diziplina Cumplimiento de instrucciones de superiores. Disciplina		
5. Ekimena iniciativa		
6. Talde-lanerako gogoa Disposición hacia el trabajo en equipo		
7. Publikoarekiko harremana (hala badagokio) Relación con el público (en su caso)		
8. Lanerako autonomia (a eta a2 azpitaldeetarako) Autonomía para el trabajo (para subgrupos A1 y A2)		
9. Erabakiak hartzeko gaitasuna (A1 eta A2 azpitaldeetarako) Capacidad de toma de decisiones (para subgrupos A1 y A2)		
Baimendutako adierazle desegokiak kopurua Número de indicadores no satisfactorios permitidos		
Behin betiko kalifikazioa (Emaitza azpimarratu) Calificación definitiva (Subraye la resultante)	Gai Apto	Ez gai No apto

Data eta Sinadura
Fecha y Firma

TUTOREA/TUTOR

IKUSKATZAILEA/SUPERVISOR

Horrekin batera, behar bezala arrazoitutako txostena erantsi behar da.
Debe acompañar informe debidamente motivado